

PJ erabat nagusi zen Solano hirigunean. Nola hautsi zenuten egitura zurrun hori?

PJren hegemonia krisian zegoen. Izan ere, gizartearen aldarrikapenak hain ziren handiak, peronistek ez zutela horri guztiari erantzuteko gaitasunik. Ondorioz, indarrean zegoen fabore sistema apurtzen hasi zen. Era berean, goi mailako erakundeetako ustelkeria oinarrikoetan ere islatzen zen, eta jendearen artean oso zabaldua zegoen auzoetako jauntxoaren aurkako gorrotoa. Gure mugimenduetan, ordea, oso bestela jokatu du: erabakiak batzarretan hartzen ditugu eta norbera bere buruaren jabe izaten hasten da. Ondorioz, gure mugimenduetan konfiantza eta atxiki-pen handiak sortu ziren.

Nolanahi ere, esperientzia hau abiatu zenetik, behin eta berriz egin dugu topo Elizarekin eta PJrekin; hots, pisu izugarriko bi erakundekin. Buruz buruko izan da borroka eta arrisku uneak bizi izan ditugu, indarkeria hautatu baitute erakunde horiek gu kikiltzeko: talde armatuak bidali dizkigute eta gure etxei su eman diete.

Zaila izan al zen jendeak parte hartzea?

Solanon borrokatzeko gaitasun handia dago. Auzo honetako lurrak 1982an irabazi ziren, diktadura indarrean zegoenean. Solano hirigune guztia Armadak inguratuta egon zen sei hilabetez. Horrek erresistentzia mugimendu handia sortu zuen. Raul Verardo abadea izan zen lurren okupazioarekin hasi zena, oinarriko eliz komunitateekin lan egiten zuen apaiz bat. Hain zuzen ere, esperientzia horren ondoren ikusi genuen lurrak irabazi eta gero bizilagunen arteko borroka leku bilakatu zela auzoa. Borroka horrek guztiak ez zuen lortzen komunitario zehatzik ekarri. Hortik ondorio bat ateratu genuen, borrokarako jarrera bat badago ere, ez dagoela parte hartze kolektiborako jarrera bera. MTDarekin hasi ginen jarrera hori lantzen.

Zein da CCC eta FTV bezalako mugimenduen eta zuen arteko diferentzia nagusia?

Langabetuen elkarteak, sarritan, erakunde politiko jakin batzuen adar sindikal gisa ikusten dira, eta, ondorioz, goitik behera antolatzen dira. Guretzat horizontaltasuna ez da taktika kontu bat, auzi estrategiko bat baizik. Izan ere, bertikaltasuna sistemaren ezaugarrietako bat dela iruditzen zaigu; behin baino gehiagotan ikusi dugu hori herriari armak kendu zaizkion iraultzetan: borroka saldu egin dute azkenean. Gure helburua ez da sistemaren tresnak hartu eta haiek erreformatzea, baizik eta beste zerbait eraikitzea. Denok protagonista izango garen herri boterea

eraiki nahi dugu, egokia zer den edo ez erabakiko duen botere talde murriztik egongo ez den sistema bat.

Lan proiektuak era badituzue, ekoizpen proiektuak. Horieta lanean jarduten dutenek planetako 150 pesok [43,85 euro inguru] kobratzen dituzte, baina irabazietatik ez dute ezer jasotzen. Aitzitik, mozkin horiek beste proiektu batzuetan inbertitzen dira. Funtzionamendu horrek ez al du protestarik sortu?

Badira ekoizten eta dirurik ikusten ez duten kideak, baina horrek ez die kezkarik sortzen. Okindegian, esaterako, mugimenduko 20 kidek lan egiten dute txanda ezberdinetan, eta honakoa esaten dute: «irabazia kolektiboa delako ekoizten dugu, komunitarioa delako, eta ez zaigu interesatzen saldutakotik irabazitako dirua gure artean banatzea».

Sinesmen horretara iristea lan motela izango da, batik bat, jende gehiena behar gorrian bizi dela aintzat hartzen bada.

Aldats gora egiten da, baina esperientziak erakutsi digu posible dela. Gure borroka nagusia, premiazkoak diren soziabilitate balioak berpiztuz pertsona gisa osatzea da. Lanerako pizgarria ez da irabazi handiagoa lortzea, baizik eta kolektiboari gehiago ematea. Hori da sari handiena. Che Guevarari jarraitzen diogu horretan, hark honakoa esaten baitzuen: «Sozialismoa banaketa sistema hutsa baldin bada, ez dut sozialismorik nahi».

Iazko abenduaren 20a mugarrria da Argentinako hurbileko historian: gainbehera ekonomiko eta politikoa hondoraino heldu zen, eta jendea-

ren protesten ondorioz De la Rúa presidenteak alde egin behar izan zuen. Nola bizi izan zenuten hura erantzia?

Inoiz ez genuen pentsatuko Buenos Aires hiriburuan erreakzio hori izango zenik. Setio egoera aldarrikatu zenean, elkarri telefonoz deika hasi ginen: «Goazen elkartzera honi buruz gogota egiteko». Errepresioaren jomuga sektore antolatuetan ginela ikusten genuen, eta biztanle guztien erreakzio bat ez bazegoen oso gaizki pasako genuela. Abenduaren 20ko gertakariak lasaitasun handia eman ziguten, bestela ez dakit aurrera egingo ote genuen ere.

Ikuspegi aldaketa bat ere ekarriko zuen Abenduaren 20ak zuen mugimendura.

Itxaropen handia sortu zigun. Ordu arte mespretxuz begiratzen ziguten sektore asko gure jarduna zentzuzkoa zela esaten hasi ziren. Garrantzi handikoa izan zen. Mugarririk izan zen Abenduaren 20a. Errepresioa eta krisia gogortuz joan diren heinean berean, gogortuz joan da honen guztiaren aurka elkarrekin borrokatu behar dugula ulertzeko gaitasuna.

Ia urtebete igaro da. Orduan egin zenituzten analisiek balio al dute orain ere?

Bai. Baziren Anibal Veron Koordinadorako kide batzuk esaten zutenak erasorako garaia heldu zela; peronismoa hiltzear zegoela esaten zuten. Guk, ordea, urtarrilean bertan esan genuen erakundeak krisian bazeuden ere, sistema bera ez zegoela krisian. Esan genuen, abenduko borroka ondorioz gauzak aldatzeko borondate berri bat sortu zela, hori ez zela

gutxietsi behar, baina, era berean, okerrenerako prestatu behar genuela. Horrekin esan nahi genuen Argentinako mugimendu guztiak elkarlana sakondu behar zela, hain justu, Duhalde presidentziara iritsi zenean abiatu zen erasoari aurre egiteko.

Laster egingo dira hauteskundeak, eta uste dugu botereak erabaki handiak hartuko dituela bozen ondoren. Botereko sektore bat —bankeroek eta enpresaburuak osatzen dutena— edozertarako prestatu dago. Menem da horien guztien buru. ALCA Ameriketako Merkataritza Askerako Hitzarmenaren bermea da Menem. Boterearen aldetik indarkeria areagotuko dela uste dugu eta gobernu autoritario bat eratuko dutela.

Horretaraino iritsi gabe ere, zuek badakizue errepresioa zer den. Hain justu, ekainaren 26an zuen mugimenduko bi kide hil zituen Poliziak errepide bat mozteko piketean parte hartzen ari zirela. Sarraski hura datorrenaren iragarpena izan al zen?

Hilabete lehenago hasi ziren ekainaren 26koa prestatzen: gobernadorearen eta Segurtasun ministroaren arteko bilerak... Gobernutik errepresio bideak prestatzen ari ziren, ez asinatzeko bitartez bakarrik, baizik eta lege amarruetan oinarritutako jazarpena ere bai. Ekainaren 26koa ondo ateratzen bazitzairen, gure kide asko auzipetuko zituzten. Erasoaldi gogorra zetorren. Dena den, bi kide horietako baten hilketak oso zabarra izan zen, argi eta garbi geratu zen fusilatze bat izan zela komunikabide alternatiboetako kide batzuk filmatu egin baitzuten. Ondorioz, Gobernuaren plana goitik behera erori zen.

Ematen du urtarrilean Duhaldek boterea hartu zuenetik egoera gero eta gehiago bortxatzen saiatzen ari direla mugimenduetako batzuk borroka armatuari hel diezaioten. Hala al da?

Bai, borroka armatua piztea nahi dute. Batzarretan askotan aztertu dugu. Bere jokorekin aurrera segitzeko borroka armatua abiatuko den erakunde bat behar du botereak, eta gu horretan sartzea orain arte eraiki dugun guztia suntsitzen hastea litzateke. Gai horrek beldur handia ematen digu, ez bakarrik indar errepresiboak gero eta indartsuagoak direlako, baizik eta badi-relako ezkerreko sektore batzuk borroka armatua beharrezko ikusten dutenak. Borroka horretarako deia egiten ari dira, eta, gu, deialdi horiek indargabetzen saiatzen ari gara.

Orain, abenduaren 20rako borroka eguna deitzen ari dira, eta uste dugu, Gobernuak ja aztertuta daukala horren aurrean zer jarrera hartu. Gu ere sakon ari gara urteurrenaren gaia aztertzen, ez baitaio amuarri heldu behar.

«Guretzako, batzarra, egitura horizontala, ez da taktika kontu bat, auzi estrategiko bat baizik»



Langabetuen elkarteetako piketeroek Buenos Aires hiriburuan, Maiatzeko Plazan, egindako protesta bat. • ANDREA MATAMALA